




## Kontsumo iraunkorra Consumo sostenible



### 14. Udalaren baldintza-orriak ingurumen-irizpideekin osatzea

Donostiako Udaleko eta mendeko erakundeetako iraunkortasun irizpideak dituzten baldintza-orrien kopurua. 2017an argitaratutako eta esleitutako baldintza-orriak zenbatzen dira.



Iturria: Donostiako Udaleko Finantza Zuzendaritza eta Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua.  
Fuente: Dirección Financiera y Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad del Ayuntamiento de San Sebastián.

2017an 16 baldintza-orri argitaratu eta esleitu dira ingurumen irizpideekin. Udaleko sail eta erakunde desberdinek sartu dituzte ingurumen-irizpideak 16 baldintza-orrietan.

### 14. Ambientalización de pliegos municipales

Número de pliegos en los que se han introducido criterios de sostenibilidad ambiental, tanto en el Ayuntamiento de San Sebastián como entidades dependientes. Se computan los pliegos publicados en 2017 y adjudicados.

En 2017, han sido 16 los pliegos ambientalizados y adjudicados. Los 16 pliegos han sido ambientalizados en los diferentes departamentos y entidades dependientes del Ayuntamiento.



### 15. Material suntsikorraren Erosketa Berdea


“Erosketa Berdea”-ren irizpideen bitartez eskuratutako material suntsikorraren gastu osoa, Udalak material suntsikorra erosteko xedaturiko aurrekontu osoarekin alderatuta. % 100 lortzea da helburua. “Erosketa Berdea” deitzen zaio, produktuen alderdi ekonomiko eta teknikoez gain, produktuek bizi-ziklo osoan ingurumenari eragin diezaioketen eragina aintzat hartuta egiten den erosketari edo kontratazioari.

### 15. Compra Verde de material fungible

Total del gasto de material fungible adquirido mediante criterios de “Compra Verde” sobre el total del presupuesto destinado a la compra de material fungible por parte del Ayuntamiento, siendo la tendencia deseable alcanzar el 100 %. Se entiende por “Compra Verde” la compra o contratación de productos que consideran no solo aspectos económicos o técnicos sino que tienen en cuenta también el impacto ambiental de los mismos en todo su ciclo de vida.



Material suntsikorren erosketa berdean gastatutakoa Gasto en compra verde en material fungible	(a)
Material suntsikorra erosteko aurrekontu osoa Presupuesto total en material fungible	(b)
$(\frac{a}{b}) \cdot 100$	
<b>Erosketa berdearen tasa: % 83</b>	<b>Tasa de compra verde: 83 %</b>



Iturria: Donostiako Udaleko Kontratazio eta Erosketen Saila.  
Fuente: Sección de Contratación y Compras del Ayuntamiento de San Sebastián.

2017an Udalak material suntsikorrean gastatutako 171.264 € -etatik % 83 erosketa berdea izan da, 2016. urtearekin alderatuz portzentajeko 5,3 puntu gutxiago. 2017an Udalak erositako material suntsikorren % 85 inguru "produktu berdeak" kategorian sartzen da, 2016ko portzentaia baino handiagoa, urte hartan % 82 izan bait zen.

De los 171.264 € gastados en material fungible en 2017 por el Ayuntamiento, un 83 % ha sido compra verde, representando un descenso de 5,3 puntos porcentuales respecto a 2016. En 2017, alrededor del 85 % de las referencias de material fungible adquiridas por el Ayuntamiento entran en la categoría de "productos verdes", porcentaje superior a 2016, año en el que se alcanzó el 82 %.



## 16. Kontsumo iraunkorra sustatzea

Jarduera kopuruaren urteko bariazioa, eta Udalak kontsumo iraunkorra sustatu eta pizteko ekintzetarako xedaturiko aurrekontua. Goranzko joera izatea da helburua.


## 16. Incentivación del consumo sostenible

Variación anual en el número de actuaciones y presupuesto destinado por el Ayuntamiento a acciones de promoción y fomento del consumo sostenible. La tendencia deseable es el aumento.

2017an xedaturiko aurrekontua Presupuesto destinado en 2017	(a)	2016ean xedaturiko aurrekontua Presupuesto destinado en 2016	(b)
$\left(\frac{a}{b}\right) \cdot 100 - 100$			
<b>Urteko bariazio-tasa: % -4</b>		<b>Tasa de variación anual: -4 %</b>	

Jarduera kopurua 2017an Número de actuaciones en 2017	(a)	Jarduera kopurua 2016ean Número de actuaciones en 2016	(b)
$\left(\frac{a}{b}\right) \cdot 100 - 100$			
<b>Urteko bariazio-tasa: % -8</b>		<b>Tasa de variación anual: -8 %</b>	



Iturria: Ingurumen Saila, Erosketen Saila, Cristina Enea Fundazioa.

Fuente: Departamento de Medio Ambiente, Departamento de Compras, Fundación Cristina Enea.

Udalak sustatutako kontsumo iraunkorraren ekintza-kopuruak eta aurrekontuak behera egin dute 2017an 2016. urtearekin alderatuta, % 4 eta % 8 hurrenez-hurren. Kontuan hartu behar da ekintza askok, gainera, gasturik eragiten ez dutela. 2017. urtean nabarmentzekoak dira Donostitruk, hilabetero ospatzen den merkatu herrikoia; JantziAgain, arropa eta jostintza arloko ezagutza trukatzeko hileroko saioa; Haziera, hazi-trukaketa eta laborantza eta agroekologiaren inguruko jakinduria zabaltzeko eta partekatze leku iraunkorra; Eskolan Konposta, hezkuntza zentroei zuzenduriko programa, hondakin organikoak sorburuan egoki ustiatzeko; eta baita Saretuz, kontsumo kontziente eta eraldatzailearen aldeko sare donostiarraren baitan kontsumo iraunkoragoa, kontzienteagoa eta bidezkoagoa lortzeko egindako sentsibilizazio eta sustatze ekintzak.

En 2017, tanto el número de actuaciones de consumo sostenible promovidas por el Ayuntamiento como el presupuesto han descendido respecto a 2016, un 4 % y un 8 % respectivamente. Se debe tener en cuenta que muchas actuaciones no implican gasto. Entre las actuaciones de 2017, destacan iniciativas que se van asentando como Donostitruk, el mercado popular de segunda mano que se realiza mensualmente; JantziAgain, espacio mensual de intercambio de ropa y conocimientos en costura; Haziera, lugar permanente de intercambio de semillas y conocimientos en cultivo y agroecología; Eskolan Konposta, programa dirigido a los centros escolares para el adecuado aprovechamiento in situ de los residuos orgánicos; así como las acciones de sensibilización y fomento de un consumo más sostenible, consciente y justo de Saretuz, la red donostiarra por un consumo consciente y transformador.



## KONTRATAZIO PUBLIKO ARDURATSU HORNIDURA, OBRA ETA UDAL ZERBITZUEN KONTRATUETAN

## CONTRATACIÓN PÚBLICA RESPONSABLE EN LOS CONTRATOS DE SUMINISTROS, OBRAS Y SERVICIOS MUNICIPALES

Donostiako Udaleko kontratazioan gizarte, ingurumen, etika, lan eta berdintasun irizpideak sartzeko jarraibideak eta baita berauen gauzatzea errazten duen Gida ere onartu ziren 2013ko ekainaren 21eko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez. 2014ko uztailaren 24an, Tokiko Gobernu Batzarrak kontratazioan gizarte klausulen aplikazioaren jarraipen eta ebaluaketa burutzeko Batzorde teknikoaren sorrera onartzea ebatzi zuen.

2014ko apirilaren 11an, Kiroletako Udal Patronatuko Zuzendaritza Batzordeak aipatutako jarraibideak eta gida onartu zituen, egin beharreko egokipenak eginez, bai kontratazioen zenbatekoa bere baliabide propioen % 5 baino gehiago bada, bai esleipenak lau urte baino gehiago irauten badu.

2015eko martxoaren 12an, Udal Informatika Zentroko Zuzendaritza Batzordeak aipatutako jarraibideak onartu zituen, Udal Informatika Zentroak egindako kontratazioetan kontratazioan gizarte, ingurumen, etika, lan eta berdintasun irizpideak sartzeko.

2017an hamasei baldintza-orri osatu dira ingurumen-irizpideekin. Halaber, zortzi baldintza-orritan berdintasun irizpideak txertatu eta beste bitan bidezko merkataritzari lotutako irizpide etikoak erantsi dira. Bestalde, berrogeita lau baldintza-orritan laneratzeko irizpideak txertatu dira eta hiru baldintza-orritan gizarteratzeko irizpideak, lizitazioan partaidetza Enplegu Zentru Bereziei erreserbatutaz.

Hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionean, baldintza-orri ia guztiek baitaritzen dituzte esleipendun enpresaren betebehargisa ezarrita dauden hizkuntz klausulak.

El 21 de junio de 2013 la Junta de Gobierno Local aprobó las Instrucciones para la incorporación de los criterios sociales, ambientales, éticos, laborales y de igualdad en la contratación del Ayuntamiento de San Sebastián”, así como la Guía para la incorporación de las mismas. El 24 de julio de 2014, la Junta de Gobierno Local aprobó la creación de la Comisión para el seguimiento y control de la aplicación de las cláusulas dimanantes de la Instrucción en las contrataciones realizadas en el ayuntamiento.

El 11 de abril de 2014, la Junta Rectora del Patronato Municipal de Deportes de San Sebastián aprobó las Instrucciones y Guía anteriores con las adaptaciones procedentes, tanto en las contrataciones de cuantía superior al 5 % de sus recursos ordinarios, como en las concesiones que tengan una duración superior a los 4 años.

El 12 de marzo de 2015, el Consejo rector del Centro Informático Municipal aprobó las Instrucciones para la incorporación de los criterios sociales, ambientales, éticos, laborales y de igualdad” en las contrataciones del Centro Informático Municipal.

En 2017 han sido dieciséis los pliegos publicados por el ayuntamiento que insertan criterios medioambientales. Asimismo, ocho pliegos han incorporado criterios de igualdad y otros dos han incluido aspectos éticos relacionados con el comercio justo. Además, cuarenta y cuatro pliegos incluyen criterios de condiciones laborales y tres pliegos han recogido criterios de inclusión social, reservándose en ellos la participación en la licitación a Centros Especiales de Empleo.

En cuanto al uso de las lenguas oficiales, prácticamente todos los pliegos incluyen cláusulas lingüísticas, establecidas como obligaciones de la empresa adjudicataria.

### IRIZPIDEAK: CRITERIOS:

**ING  
AM**  
Ingurumena  
Ambientales

**GIZ  
SOC**  
Gizarteratzea edota  
laneratzeko baldintzak  
Inclusión social y/o  
condiciones laborales

**BER  
IGU**  
Berdintasuna  
Igualdad

**ETI  
ETI**  
Etikoak / Bidezko  
merkataritza  
Éticas / Comercio Justo



ING AM GIZ SOC BER IGU ETI ETI

Donostiako scooter erako sei motozikleta elektriko-ren hornidura Donostiako Udaleko mugikortasuneko atal operatiborako	■					Suministro de seis motocicletas eléctricas tipo scooter para la sección operativa de movilidad de Ayuntamiento de San Sebastián
Udal proiektu eta obretan segurtasun, osasun eta hondakinen kudeaketa-arloko aholkularitza emateko eta dokumentazio teknikoa idazteko zerbitzuak	■					Servicios de "asistencia y redacción de documentación técnica en materia de seguridad y salud y gestión de residuos en los proyectos y obras municipales".
PSIZentzat, azkeneko atala artikulatua duen, 40 m-ko auto-eskailera automatiko birakari baten hornidura	■					Suministro de un vehículo auto-escalera giratoria automática de 40 m, con el último tramo articulado para el SPEIS de San Sebastián.
Txomin Enea LO.05 hea barrutik berritzeko plan bereziko ibai parkea urbanizatzeko proiektuari dagozkion obrak egitea	■					Proyecto de urbanización del parque fluvial del plan especial de reforma interior del AIU LO.05 Txomin Enea
Miramón Pasealekua egonkortzeko obrak egitea	■					Obras de estabilización Paseo Miramon
Donostiako zenbait udal zentzoren artean ondasun materialen aldaira eta garraiorako zerbitzuak	■					Servicio de mudanzas y transporte de bienes materiales, entre diversos centros municipales de San Sebastián
Artikutzako zonalde batean egingo den baso lanak	■					Enajenación del aprovechamiento forestal de arbolado en Artikutza
Udaltzaingorako 4 patrullarako ibilgailu renting bidez eskuratzeko kontratua, erosteko aukeraz	■					Suministro, puesta en servicio y mantenimiento mediante arrendamiento (renting) con opción de compra de cuatro vehículos coches patrulla, para la Guardia Municipal
Haurren babesgabetasuna prebenitzeko detekzio eta esku-hartze goiztiarrerako programa zerbitzua ematea		■				Prestación del servicio del programa de detección temprana e intervención precoz con menores
"Babesgabezia egoeran" dauden adin-txikien kasuen kudeaketarako zerbitzuak egitea		■				Servicios de gestión de casos en situaciones de desprotección de menores
Kulturarteko bizikidetzeta sustapena eskola komunitatean zerbitzuaren prestazio zerbitzuak egitea		■				Prestación de los servicios de promoción de la convivencia intercultural en la comunidad escolar
Donostiako Udalaren lana herritarrei aditzera emateko "Aholku, estrategia eta sormena" zerbitzuak egitea	■	■				Servicio de Asesoramiento, estrategia y creatividad" en la comunicación a la ciudadanía donostiarra de la labor del Ayuntamiento
Urgull mendiko gazteluaren inguruko taberna ustiatzeko zerbitzua, eta haren ondoko komun publikoei kasu egitea	■	■				Servicios de explotación del bar existente en las inmediaciones del castillo del monte Urgull, así como la atención de los evacuatorios de uso público
"Haurrak beti jolasean" izeneko neguko kultur jardueraren antolatzeko eta burutzeko zerbitzuak	■	■				Organización y ejecución de la actividad cultural de invierno "haurrak beti jolasean"
Ondarreta gazte aterpetxean (La Sirena eraikina) gosari, bazkari eta afari zerbitzuak gizarte eta ingurumen irizpideekin	■		■			Servicio de desayunos, comidas y cenas en el albergue juvenil Ondarreta, edificio La Sirena, con criterios sociales y ambientales
Donostiako Udaleko gutun arruntak bideratzeko posta zerbitzuak ematea, Enplegu Zentro Bereziatzen eta laneratze enpresentzat erreserbatua	■			■		Servicios postales de correspondencia ordinaria del Ayuntamiento de San Sebastián, reservado a Centros Especiales de Empleo y Empresas de inserción
Donostiako komun publikoen arreta zerbitzuen prestazioa Enplegu Zentro Bereziatzen eta laneratze enpresentzat erreserbatua	■			■		Servicios de atención de los evacuatorios públicos de la ciudad, reservado a Centros Especiales de Empleo y Empresas de inserción
"Oporretan euskaraz" izeneko udaleku irekiak gizarte eta ingurumen irizpideekin antolatzeko eta gauzatzeko zerbitzua	■	■	■			Servicios de la organización y ejecución de las colonias abiertas de verano "Oporretan euskaraz", con criterios sociales y medioambientales
Donostiako agenda, paperezko eta digital formatuetan era bateratuan egitea eta kudeatzea egitea kontratatuz, Enplegu Zentro Bereziatzen eta laneratze enpresentzat erreserbatua	■	■		■		Realización y gestión de Donostiako agenda, en formatos papel y digital de manera unificada, reservado a Centros Especiales de Empleo y Empresas de inserción



## HIRIRAKO ELIKADURA-SISTEMA OSASUNTSU, ZUZEN ETA JASANGARRIA

Udalak Hirietako Elikadura Politikaren Milango Ituna sinatu zuen 2017ko uztailean eta, era horretan, hirian elikadura-sistema jasangarriagoa izan dadin lortzeko konpromisoa hartu zuen.

Gauzak horrela, hiria elikadura-sistema jasangarriak antolatzeko konpromisoa hartu duten munduko 167 hiri baino gehiagoz osaturiko sare batean sartu da (hiri horietan guztira 450 milioi lagun bizi dira). Itun hori hiriei elikadura-sistema berdinzaleak antolatzea eskatzen dien nazioarteko lehen protokoloa da. Protokoloaren xedea da, hain zuzen ere, sistema horien bitartez elikadura osasuntsua izan dadin ziurtatzea, dieta osasungarriak sustatzea eta elikagai gutxiago alferrik galtzea. Hori, kontuan hartuta, halaber, lurraldea eta biodibertsitatea zaintzea eta klima-egoera berriei egokitzea nahitaezkoa dela.

Konpromiso horrek aldaketa handiak eragingo ditu, asmoa politika integratuetan ikuspegi holistikoak aplikatzea delako eta udalen elikadura- eta nutrizio-segurtasunaren kudeaketan aurrerapauso handiak eragingo dituelako. Kontuan hartu beharra daukagu elikadurak, zentzu zabalean, honako hauekin duela zerikusia, besteak beste: osasuna, ingurumena, pertsonen ongizatea, tokiko ekonomia, elikagaien ekoizpena eta kultura gastronomikoa.

Udalak, hartutako konpromisoa gauzatzeko eta Milango Itunean proposaturiko gaiei heldurik, hirian lantzen ari diren eta elikadura-sistema jasangarria finkatzen laguntzen duten ekimen eta jarduerak bildu ditu. Era horretan, hirirako elikadura-estrategiaren oinarriak ezarri eta datozen urteetarako erronka eta helburuak zehaztu ditu. Elikadura-estrategia hori, gainera, Klima DSS 2050 Planarekin lotuta dago.

Estrategiaren helburu nagusietako bat elikadura osasungarria sustatzea da. Horretarako, asmoa da donostiarren erosketa- eta kontsumo-ohiturak aztertzea eta, halaber, modu osasungarrian elikatzen ikasteko heziketa-programak antolatzea.

Beste lan-ildo baten xedea da elikagaiak alferrik ez galtzea eta, horretarako, non eta nola alferrik galtzen diren zehaztea, batetik; eta merkatu-irizpideak direla eta baztertzeko diren elikagaien zirkulazioa irtenbideak bilatzea, bestetik.

Aipaturiko estrategian jasotako beste asmoetako bat da hiri-baratzeen sare heterogeneo bat sustatzea: helburu ekonomikoa dituzten baratzeak, autokontsumorakoak, aisiarakoak eta heziketarako edo eskola-elkarteek erabiltzeko sortutakoak.

## UN SISTEMA ALIMENTARIO SANO, JUSTO Y SOSTENIBLE PARA LA CIUDAD

En julio de 2017 el Ayuntamiento firmó el Pacto de Política Alimentaria Urbana de Milán adquiriendo de esta forma el compromiso de impulsar en la ciudad un sistema alimentario más sostenible.

Con la firma del Pacto, la ciudad forma parte de una red de más de 167 ciudades de todo el mundo, -en la que habitan 450 millones de habitantes-, comprometidas en la elaboración de sistemas alimentarios sostenibles. Es el primer protocolo internacional que pide a las ciudades el desarrollo de sistemas alimentarios igualitarios, que garanticen una alimentación sana, promuevan las dietas saludables y reduzcan el desperdicio de los alimentos, teniendo en cuenta también la conservación del territorio, su biodiversidad y la adaptación a los nuevos escenarios climáticos.

Este compromiso marca un giro significativo en cuanto a la búsqueda de enfoques holísticos de políticas integradas y supone un avance en la gestión de temas de seguridad alimentaria y nutricional del trabajo municipal. Se debe tener en cuenta que la alimentación en sentido amplio tiene que ver, entre otras cuestiones, con la salud, el medio ambiente y el bienestar de las personas, con la economía local y la producción alimentaria o con la cultura gastronómica.

Consecuente con el compromiso adquirido, y siguiendo los campos temáticos que se proponen en el Pacto de Milán, el Ayuntamiento ha elaborado una recopilación de diferentes iniciativas y acciones que se están desarrollando en la ciudad y que contribuyen de algún modo al asentamiento de un sistema alimentario sostenible. De este modo, se han podido establecer las bases de una estrategia alimentaria para la ciudad, esbozando los retos y las metas para los próximos años. Una estrategia alimentaria entroncada a su vez en el Plan Klima DSS 2050.

Fomentar la alimentación saludable es uno de los principales objetivos perseguidos en la estrategia; para ello se propone estudiar los hábitos de compra y consumo de la ciudadanía donostiarra, estableciendo a su vez programas de educación para aprender a alimentarse de manera saludable.

Otra línea de trabajo persigue reducir el despilfarro alimentario, identificando los focos y flujos de posibles derroches con el fin de reducirlos, buscando a su vez salidas a alimentos que por criterios de mercado se desechan.

La promoción de una heterogénea red de huertas urbanas asentadas con finalidad económica o de dimensiones y



Horrez gain, estrategiak planteatzen du lehen sektoreko agenteak eta erakunde, establezimendu eta kontsumitzailen eskaria lotzea eta, horretarako, administrazioak berak modu aktiboan parte hartzea. Izan ere, tokiko aliantza horrek erraztu dezake esperientziak trukatzeko, ekimenak bultzatzea eta, aldi berean, ekimen horiek hirian zabaltzea eta gizarteratzea eta biztanleak elikadura guztiontzako osasungarria eta jasangarria izateak duen garrantziaz jabeatzeko.

propósito de autoconsumo, ocio, con vocación educativa o dirigidas a la comunidad escolar, es otra de las metas recogidas en la estrategia, que prioriza asimismo la producción ecológica en ese tipo de asentamientos.

Además, la estrategia plantea establecer una línea de encuentro y diálogo entre agentes del sector primario y la existente y potencial demanda de entidades, establecimientos y personas consumidoras, con una implicación activa de la propia administración. Una alianza local que facilite el intercambio de experiencias y el impulso de iniciativas que a su vez se proyecten y socialicen en toda la ciudad, sensibilizando en la importancia de una alimentación saludable y sostenible para todas las personas.

Informazio gehiago:

Milango Ituna  
Klima DSS 2050 Plana

Más información:

Pacto de Milán  
Plan Klima DSS 2050